

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

12-6-21 3.ALEA

Bailaran, Aiztondoko herriak elkarlanean

6. ORR. ►►

Zero Zabor
taldekoekin hizketan

3. ORR. ►►

Komunikazio
tresna
berriak

8. ORR. ►►

Festen
aurrerapena

11. ORR. ►►

EDITORIALA

Ilusioaren garaipenetik, urtebete

Hamabi hilabete igaro dira Bildu Zizurkilgo Udalera iritsi zenetik. Jende askoren ilusio eta babesak eraman gintuen Udalera, eta hori izan dugu akuilu lehen urte honetan.

Ez da urte erraza izan. Hainbat legealdi Udaletik kanpo eman ondoren, egoeraz jabetzea izan zen lehen lana eta gogorra izan da Udalak duen egoera ekonomikoa zein beltza den ikustea. 3 milioi euroko zorrak asko mugatzen gaitu, baina argi izan dugu proiektuak aurrera ateratzeko jaso genuela erabakia, eta mugak gaindituz, ekimenak aurrera eramaten saiatu gara.

Zenbait aldaketa bistakoak dira: Hirigintza arloan, bi herriguneetan abian jarri diren etxebizitza eta aparkaleku proiektuak, Udal komunikazioa hobetzeko neurriak, gastu finkoa jaitsi duten erabakiak, herriko gazteak elkartzeko emandako babesa, zenbait txokoren txukuntzea...

Hori guztia, filosofia aldaketa batekin egiten saiatu gara. Udala herritarrei irekiz. Martxan jarri diren

batzordeen bidez, guztiz aberasagarria izaten ari da elkarlana. Datozen hilabeteetan bide hori sakontzen jarraituko dugu, herriko Agenda 21-en berrikuspenaren bidez. Zenbait gaiekin, bilera irekiak egin ditugu, aurrekontuak azaltzeko edo Joxe Arregi plazaren hiritartzeaz erabakiak hartzeko, esaterako. Arazoak zituzten herritarrengandik gertu egoten ere saiatu gara, AHT-k kaltetutako herritarrekin elkarlanean aritu

gara, Lizarain inguruko arazoari irtenbidea aurkitzeko lan egin dugu, adin txikiko zentruaz aldundiarekin bitartekaritza ari gara...

Ez gara politikari profesionalak. Zizurkil hobe bat nahi dugun herritarrak gara. Hasi gara bidea egiten, elkarrekin.



lazio ekainean, kargu hartze ekitaldiaren ostean ateratako argazkia.

Un año, del triunfo de la ilusión

Han pasado 12 meses desde que Bildu llegó al Ayuntamiento. Recibimos el voto de la ilusión de muchos y muchas zizurkildarras.

No ha sido un año fácil. Los casi 3 millones de deuda del Consistorio nos limitan, pero sabemos que estamos en el Ayuntamiento para que los proyectos que necesita Zizurkil salgan

adelante. Algunos cambios son evidentes: los proyectos que se han puesto en marcha en los dos núcleos urbanos, los cambios para mejorar la comunicación del Ayuntamiento, las decisiones para reducir el gasto corriente...

Todo ello, con un cambio de filosofía. Hemos intentado abrir las puertas del Ayuntamiento a

los y las zizurkildarras. Mediante las comisiones, el trabajo conjunto esta siendo realmente enriquecedor. Seguiremos por ese camino.

No somos políticos profesionales. Somos zizurkildarras que queremos un pueblo mejor. Hagamos juntos y juntas el camino.

Senidetze Eguna, El Salvador eta Aiztondo lotuz



El Salvadorko Meanguera herriko hiru kide bisitan izan ditugu egunotan. Aurten Asteasun ospatu den senidetze eguna dela eta etorri dira gurera, eta bide batez, Euskal Herriko errealitatea ezagutzeko baliatu dute bidaia. Da-

torren urtean beteko dira 20 urte Zizurkil Meanguera herriko Segundo Montes komunitatearekin senidetze zenetik. Gerra garaian, El Salvador-tik ihes egin zuten milaka errefuxiatuk sorterrira itzultzean sortu zuen komunitatea

da Segundo Montes. Gaur egun Aiztondo osora zabaldua dago senidetzea, baina Zizurkil izan zen lehena Segundo Montesekin lotura egiten. 20. Urteurrena ospatzeko, datorren urten Zizurkil egingo da senidetze eguna.

ERREPORTAIA

Hondakinen arazoari irtenbide jasagarria eman nahian

Hilabete batzuk badira Zizurkilgo zenbait herritarrek Zero Zabor taldea sortu zutela. Villabona-koarekin elkarlanean ari dira eta helburua argi dute: Jendea dugun arazoaz jabetu eta kontzientziaztea, Zero Zabor filosofiarekin bat egin dezan. Hau da, hondakinak gutxitu, birziklatu eta berreskuratzearen filosofiarekin.

Egungo egoeraz diagnostikoa egiteko eskatu diegu lehenik. Mikel Ugarte herritarrek honela azaldu du: "350 mila tona zabor sortu genituen 2011ean Gipuzkoan, eta horietatik %90 birziklagarria izan

arren, %30 soilik biltzen da gaitika. Zabortegiak mugara iristen ari dira eta irtenbide gisa erraustegia planteatzen zaigu horrek dakarren diru-xahutze eta zabortegi toxikoekin". Horren aurrean, buruz jokatu



Zero Zabor taldeko kideak bilera batean.

behar dugula aipatu du. "Logikak eskatzen du birziklatu daitekeen guztia birziklatzea, hori da gure betebeharra".

Atez atekoa

Atez atekoaren inguruan sortu den eztabaidaz jarrera argi dute Zero Zabor taldean. Ainara Ansa taldekidearen hitzetan, "Atez atekoa bilketa sistema bat da soilik. Helbu-

rua argia da, ahal den gehien birziklatzea. Beste sistema bat hobe dela erakusten bada, ez izan zalantzarik, guk horren alde egingo dugu. Baina gaur gaurkoz sistemarik eraginkorrena atez atekoa da".

Sistema honen bideragarritasun ekonomikoaz galdetuta, argi dute erantzuna. "Gipuzkoan ez dugu atez atekoa asmatu. Italia izan zen aitzin-

El grupo Zero Zabor, en busca de una solución sostenible

El grupo Zero Zabor de Zizurkil lleva meses trabajando para concienciar a los y las zizurkildarras del problema que supone la gestión de los residuos urbanos e intentando transmitirles la filosofía Zero Zabor: disminuir, reciclar y reutilizar los residuos. Las personas que integran el grupo

hacen hincapié en que sólo el año pasado se crearon 350.000 toneladas de residuos y que, a pesar de que el 90% era reciclable, tan sólo se recogió de forma separada el 30%. "Los vertederos están llegando a su límite de capacidad y la única salida que se nos plantea es la incineradora, con el coste

económico y en términos de salud que eso supone", remarcan.

El objetivo de la recogida puerta a puerta es reciclar toda la materia posible. En opinión del grupo, ningún sistema ha demostrado hasta ahora una eficacia mayor. En cuanto a las dudas que se plantean acerca

de su viabilidad económica, recuerdan que no es un sistema creado o inventado en Gipuzkoa. "Italia fue pionera y hoy en día a millones de personas se les recoge los residuos puerta a puerta en EEUU y Europa; y más cerca, en Cataluña también. En muchos casos la razón principal para implan-



Udaleko alderdiak mintzo



Joxe Mari Luengo Alkateak eta Aitor Sarasua ingurumen zinegotziak eman dituzte azalpenak. "Lehenengo, onartu behar dugu azkar hartu behar izan genuela erabakia. Ekaina amaiera arteko data zuen erraustegiaren lanak geratzeko EAJrekin lortutako akordioak, eta tarte horretan erraustegirik nahi ez genuenok alternatiba planteatu behar genuen. Alternatiba

integral horren zatia da hondakinak beste era batera biltzea". Horrela, autokritika egin du Luengok. "Onartzen dugu forma aldetik azkar ibili garena, baina sakonean argi dugu ondo egitera goazela. Herritarrekin auzoz auzo hitz egingo dugu". Lanketa betean ari dira birziklatze tasa igoko duen eta herrira egokituko den sistema diseinatzen. Sarasuak azaldu du: "Beste herrietan egin

den moduan, zonalde bakoitzaren ezaugarrien arabera aplikatuko dugu atez atekoa. Landaguneak diren eremuetan, Zizurkil Goian eta beheko zonalderen batean ere bai, organikoak autokonposta bidez tratatu nahi dugu. Guk sortzen ditugun hondakina guk kudeatzea dakar horrek, kanpora eraman beharrik gabe". *"El objetivo está claro, reciclar lo máximo posible"*



EAJk Elbarrenan banatu duen idatziaren bidez adierazi du gaiaz duen iritzia. EAJko Zizurkilgo taldeak salatzen du "erabakiak kanpoan hartzen direla". Hondakinaren bilketa modu ezberdinean aplikatuko dela ere badiote jeltzaleek. "Atez ateko sistema Zizurkil behean ezarriko da eta horrek gure ustean behekoak diskriminatzen ditu". Ekonomia ere

aipatzen du EAJren oharrak. "Ez dago bideragarritasun ekonomiko ikerketarik". Erreferendumik ez dela egingo ere kritikatu du EAJk, baita Tolosaldeko mankomunitate ere. "Tolosaldeko mankomunitatean sortuko den batzordea pantomima hutsa da, erabakia hartuta baitago". Jeltzaleek argi dute euren proposamena, "dagoeneko

badauzkagun edukiontziez gain, bostgarren bat, edukiontzi marroia jartzea, materia organikoarentzat izango dena, hain zuzen. Arrazionaltasunez aplikatu beharreko hondakinaren kudeaketa aldarrikatzen dugu". *"Apoyaremos cualquier iniciativa que defienda la gestión de la recogida de basura desde la racionalidad"*



Alderdi sozialistak idatzi bidez azaldu du iritzia: "Pertsona ugari kontzientziatuak daude eta denbora daramate birziklatzen, berrerabiltzen eta kontsumoa murrizten, oraingo edukiontziak erabiliz. Informazioa emanez, hezikatzen duenak ez dio beldurrik izan behar atez atekoari, eta birziklatzen ez duenak ulertu behar du horrela ezin dugula jarraitu".

kentzea, Udalaren inbertsioa mespretxatuz. Zaborrak zutoinetan zintzilik egotea denon begien agerian, intimitatean, estetikan eta osasunean atzera pausua da. Atez-atekoa gainera, oso sistema garestia da. Inposaketak desobediencia eragingo du eta behartuko gaitu beti zaborren gainean egotera, edo bestela isuna ezarriko digute. Sozialistok,

gaur egungo lau edukiontzien jarraitu eta zabor organikorako beste bat ezartzea nahi dugu, erosoagoa eta txukunagoa delako eta horrez gain, birziklatzeko kapazitatea handitu egiten delako". *"La gestión de residuos que degrada la calidad de vida urbana, como el PaP, social y medioambientalmente no es sostenible"*



Atez atekoaz ekainaren 6an Atxulondo kultur etxean hitzaldia izan zen.

dio Aizpea Zabala taldekideak. "Erraustegiak ez du zaborte-gien gaia konpontzen, larriagotu baizik. 3 zaborte-gi behar ditu: Bat atmosfera, airera partikulak isurtzen baititu; bigarrena eskorientzat, erretzen denaren %20 hondakina da eta toxikoa izan daiteke; Eta hirugarrena, erraustentzat. Erretzen denaren ehuneko bosta errauts toxikoak dira. Horiek zaborte-gi bereziak behar dituzte gordetzeko. Beraz, ez da egia erraustegi zaborte-giak behar ez dituenik". Europako legebiltzarrak duela hilabete Europar Batasunari eskatu zion 2020rako birziklatu daitezken hondakinak erretzea debe-

Noiztik, ordea? Duela 20-30 urtetik. Eta orain, Alemanian esaterako, behartuta daude zaborrak kanpotik eramatera erraustegiak mantentzeko".

Gaur egun ez dago zaborte-girik behar ez duen sistemarik. Zero Zabor taldetik, erraustegiak sortuko lituzkeen zaborte-gi toxikoen aldean beste eredu bat defendatzen dute. "Errefusa asko gutxitzen da atez atekoarekin. Errefusetik berreskura daitezkeen material birziklagarriak bereizi eta gainerakoa tratatu egin behar litzateke, inertizatuz. Kasu honetan, errefusategietan biltzearekin ez legoke arazorik, organikorik gabeko hondakina denez, ez litzateke metanorik isuriko, ez kiratsik izango".

«Erraustegiak ere zaborte-giak behar ditu»

Erreferenduma

Erreferenduma ez al litzatekeen egin behar galdetu diegu. "10 urte daramatzagu arazo honi irtenbidea eman nahirik, eta inork ez du bere herrian ez zaborte-girik eta ezta erraustegirik eraikitzeko eskatu. Inork ez du horrelakorik nahi, beraz. Irtenbidea inork nahi ez duen hori ekiditen duen sistema bat bilatzean oinarritu behar da, eta irtenbide bakarra dago: birziklagarria den guztia birzi-

katzeko. "Horrek esan nahi du gaikako bilketan sakondu behar dela, eta hori eginez gero, tratamendurako, erraustegia baino irtenbide hobea badira". Europar dauden erraustegiak aipatu dizkiegu. "Asko birziklatzen duten Flan-drian eta Alemanian badituzte.

4 daria, eta gaur egun milioika biztanleri jasotzen zaie zaborra atez ate, Estatu Batuetan, Europan... Gertura begira, Katalunian ere bai. Horietako zenbait kasutan, atez atekoari ekiteko arrazoia ekonomikoa izan zen". Sistema osoaren kostuari begiratu behar zaiola diote. "Bilketa garestiagoa da, bilketa puntua herritarri gerturatzen zaiolako. Baina tratamenduan asko aurrezten da. Errefusa, orain edukiontzi berdeetan biltzen dena, 140 euro kostatzen da tonako. Organikoa bereizita bilduta, 70 euro, erdia. Gainera

birziklagarriak diren beste atelekin Udalak diru sarrerak izan ditzake, enpresek material horientatik ordaindu egiten baitute. Beraz, sistema osoarekin, buelta ematen zaio gastuari. Gainera, atez atekoak diru lanpostuetan inbertitzen du".

Erraustegia

Atez atekoa eta erraustegia parean jarri diren arren, bat bilketa sistema da eta bestea tratamendua. Atez ateko bilketak ordea, dituen birziklatze tasa altuengatik, erraustegia ez den tratamenduak errazten dituela

tar el puerta a puerta fue la económica", subrayan. Y es que, a pesar de que la recogida es más cara, el tratamiento de los residuos tiene un costo menor y los Ayuntamientos reciben compensación por las fracciones de residuos que se reciclan.

Vertederos

Subrayan que, en contra de lo que se ha querido hacer creer, no existe ningún sistema que no requiera de vertederos, y

"la incineradora también precisa de ellos y además son más tóxicos". A nivel legal recuerdan además que el Parlamento Europeo pidió a la Unión Europea que prohíba incinerar residuos reciclables para el año 2020, "lo que obliga a profundizar en la recogida selectiva".

Sobre la necesidad de plantear un referéndum en torno al sistema de residuos, afirman que hasta ahora no se ha propuesto realizar nada así en torno a los vertederos y la

propia incineradora. Subrayan además que hasta el momento ningún sistema de gestión ha mostrado tasas de reciclaje tan elevadas como el puerta a puerta, "si lo hubiera, se podría plantear un referéndum que no se centrara sólo en la recogida, sino que se basara en el sistema en su integridad".

Mensaje a la ciudadanía

Entienden la preocupación surgida entre los vecinos y las vecinas ante el sistema puerta

a puerta y, por ello, plantean una campaña basada en la información y en la participación, en la que los y las zizurkildarras decidan las características del sistema: Horarios, puntos de recogida... "A la gente le pedimos confianza, porque ganaremos en términos de medio ambiente y salud. Las personas que reciclan no deben tener temor al puerta a puerta y las que no lo hacen deben entender que no podemos seguir así".

ERREPORTAIA

Bailaran, herriak etorkizuneko Aiztondo lantzen

Aiztondoko udalerriek "Bailaran" hausnarketa prozesua abiatu dute. Herrietako mugak gainditu eta alor ezberdinetan gure bailarako herriek dituzten beharrak identifikatu eta denen artean, bailarako irtenbidea ematea da asmoa.

Zizurkilgo Parte Hartze batzordean sortu zen ekimen honen ideia. Proposamenari forma eman eta udal arduradunek bailarako gainontzeko udalerrietako ordezkariak aurkeztu zieten. Denek egin zuten bat proposamenarekin. Izan ere, Nerea Lizarraga Zizurkilgo alkateordearen hitzetan, "momentu egokia da ariketa hau egiteko. Bailarako herri guztiek (Larrauli izan ezik) herriko Agenda 21 plana bezala ezaguna den plan estrategikoaren berrikuspena jarri dute abian, eta finean, planteatzen dena, herri mailan egiten diren hausnarketa horiek bailara mai-

lako ikuspegiarekin bat egitea da". Horrez gain, Aiztondoko herrien artean hartueman handia dago, hainbat zerbitzu partekatzen baitituzte: hezkuntza, osasuna, kirol instalazioak... Arrazoi horiek medio, udalerriguztietako ordezkariak ontzat jo zuten alorrez alor, bailaran ditugun beharrak identifikatu, eta herrian herriko helburuak jarri beharrean, bailara mailako irtenbide bateratua ematea. "Honela Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo udal ordezkariak biltzen hasi ginen dinamika honen oinarriak finkatu eta bideari ekiteko", dio Nereak.



Lehendabizi egin zuten lana prozesuari izena jartzea izan zen: "Bailaran" izendatzea erabaki zuten. Logoa lantzen ere ari dira, nahiz eta oraindik labetik noiz aterako zain dauden. Ondoren, hausnarketa prozesu honetan jorratuko ziren gaiak erabaki zituzten. "Lau gai konkretu lehenetsi genituen: Hezkuntza, gizarte zerbitzuak, azpiegitura-instalakuntzak eta kultura", azaldu du Lizarragak. Lantzeko beste alor batzuk ere identifikatu dituzte, besteak beste,

mugikortasunarena. "Gerorako utzi ditugu, bailarako ikuspegiak gain, eskualde mailako lanketa behar duten gaiak direlako eta gai guztiak jorratzeak dituen zailtasunengatik".

"Hezkuntza Bailaran"

Aipatutako lehenetsuek lau gaien artean hezkuntzarena aukeratu dute hausnarketa prozesua abiatzeko. "Egokia iruditu zitzaigun hasteko: Aiztondoko udalerriek partekatzen dugun oinarri-oinarritzko zerbitzu bat

delako eta gizartearen eraldaketan duen garrantziagatik batez ere, baina baita ere alor honetako eragileak identifikatzen nahikoa erraza delako. Lehenetik ere herrian herriko udalarekin harremanetan zeuden, eta honebestez, lanketa guzti hau aurrezten genuen", azaldu du alkateordeak.

Maiatzaren 16an egin zen "Hezkuntza Bailaran" hausnarketa prozesuko lehenengo saioa Zizurkilgo Pedro Mari Otaño ikastetxean. Udalerri

bakoitzak bere herriko ikastetxeak, guraso elkarteak, eskolaz kanpoko hezkuntza eskaintzen duten entitateak, eta hezkuntzaren munduan esperientzia daukaten herritarrak gonbidatu ziren. Oro har, udal ordezkariak gustura daude deialdiak izandako erantzunarekin: "Bailarako derrigorrezko hezkuntza eskaintzen duten ikastetxe guztietako ordezkariak aurkeztu ziren, gaiarekin kezkatuta dauden herritarrak ere bai, eta baita pare bat guraso elkartetako kideak

Zizurkil Herrilanean Agenda 21 planaren berrikuspena

Zizurkil Tokiko Agenda 21 planaren definizioan buru-belarri sartuta dago. Berrikuspen honen bidez, 2020. urtera arteko ekintza plana diseinatuko da. Une honetan, alorrez alorreko diagnostikoa egiten ari dira. Behin argazki hori esku artean edukita parte hartzea oinarri izango duen prozesua abiatuko

da. Alor ezberdinetako herritar zein eragileak elkartu, diagnostikoa osatu eta helburu batzuk finkatzeaz gain, bertan identifikatzen diren beharrei eta asmoei irtenbidea emateko ekintza plana diseinatu beharko da. Zizurkil herrilanean hobetzerako gonbidatzen zaitugu. Adi irailetik aurrerako deialdiei.

ere. Orokorrean ordea, eskolaz kanpoko hezkuntza eskaintzen duten taldeen eta azaldu ez ziren guraso elkarten falta nabarmen somatu zen".

Hezkuntzak zein leku du zure herrian eta bailaran? Bailaran eta herrian ematen den hezkuntzari buruz zein iritzi duzu? Bi galdera hauen inguruan hasi zuten hausnarketa prozesua. "Taldea dinamika baten bidez, eragile bakoitzak egiten zituen akarpenak gaiaren arabera multzokatu genituen, eta era honetan, hainbat gai edo kezka identifikatzea lortu genuen", azaldu du Li-

zarragak. "Gehien errepikatu ziren gaietako batzuk, ikastetxeek herrian duten parte hartzea, Derrigorrezko Hezkuntza amaitu osteko ikasketen eskaintzarik eza, edota azpiegituren arazoa izan ziren", gehitu du. Ondorio nagusia

«Guztiak ikusi zuten hezkuntzaz hausnartzeko beharra»

ordea, zera da, "hitzorduan bildu ziren eragile guztiek ikusi zutela hezkuntzaz bailaran hausnartzeko beharra". Horregatik, lehenengo ondorio hauei heldu eta banan-bana aztertu eta landuko dituzte aurrerantzean egingo diren deialdietan. Udako oporren ostean ekingo diotela jakinarazi du Lizarragak. Bide batez, dei egin die hezkuntzako eragile guztiei, eta batez ere gurasoei, bertan parte hartu dezaten.

Bailaran, labrando el mañana de Aiztondo

Los municipios de Aiztondo (Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona y Zizurkil) han comenzado un proceso de reflexión cuyo objetivo es aportar soluciones a las necesidades de cada pueblo, desde un punto de vista de valle.

La idea surgió en la comisión de participación ciudadana de Zizurkil y fueron los y las ediles del consistorio quienes trasladaron la idea a los demás ayuntamientos del valle. "Todos vieron conveniente realizar esta reflexión

conjunta a nivel de Aiztondo", asegura la teniente alcalde de Zizurkil, Nerea Lizarraga. Al proceso lo han llamado "Bailaran", y ya han realizado las primeras reuniones para decidir qué ámbitos se van a trabajar: "Hemos decidido

que los campos a trabajar en un inicio, serán la educación, los servicios sociales, las infraestructuras-instalaciones y la cultura".

"Hezkuntza Bailaran"

De hecho, ya ha comenzado el proceso de reflexión y el primer tema a abordar

es la educación. El 16 de mayo se reunieron los y las representantes de todos los centros educativos del valle, junto con representantes de algunas asociaciones de padres y madres, las entidades que ofrecen actividades extraescolares y vecinos y vecinas que tienen experiencia

en este campo. "La reunión sirvió para identificar algunas cuestiones que trabajaremos en los diferentes foros que convocaremos después de las vacaciones de verano", explica Lizarraga. "La participación de las escuelas en el pueblo, la falta de oferta de estudios superiores en el

valle, o la problemática de las infraestructuras escolares fueron algunos de los temas que se abordaron", añade. Lizarraga invita a todos los agentes de la enseñanza, especialmente a los padres y las madres, a que participen en las próximas convocatorias.

ERREPORTAIA

Udala, komunikaziorako ateak zabaltzen

Bildu udalera iritsi orduko, Udalaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetzea izan du lehentasunetako bat. Urtebete honetan, euskarri berriak sortu eta lehen zeudenak eraberritu dira.

Leire Zubeldia kazetari eta irakaslea da Zizurkilgo Udaleko lehen komunikazio zinegotzia. Orain arte ez da egon horrelako ezaugarririk zuen zinegotzirik. "Komunikazioaren arloari garrantzia eman nahi izan diogu egituratik hasita, eta horreagatik sortu genuen parte hartze eta komunikazio batzordea ere", azaldu du. "Zizurkildar bezala, azken urteetan Udalak zer egiten zuen ez genekiela sumatzen nuen, eta hori aldatzeko pausuak ematen saiatu gara orain Udalean egonik". Joan den udan landutako komunikazio plana garatzen aritu dira ikasturte honetan.

Plazaberri aldizkaria

Udalak iaz arte maiztasunez argitaratzen zuen euskarri bakarra, Zer Ote? gida zen. "Herriko agendari begirako argitalpena da, baina badira agendaz gaindi landu beharreko gaiak, horregatik herri aldizkari bat

sortzea erabaki genuen. Horrela sortu zen Plazaberri aldizkaria". Joan den irailean ateratu zen aldizkari honen lehen alea, eta harez geroztik, hiru hilabeteko urtaro aldaketekin batera kaleratu da. "Sumatu ahal izan dugunez, jendeak eskertzen du herriko informazioa jasotzea".

Zubeldiak berak, eta komunikazio eta parte hartze batzordeko beste zenbait zizurkildar kazetarik lantzen dute Plazaberriko informazioa. "Guztiok aparteko lanak ditugu, beraz bolondres moduan egiten dugun aldizkaria da. Batzordean erabakitzen ditugu jorratu beharreko gaiak, eta horiek garatzen ditugu", nabarmendu du. Plazaberriren helburua argia da, Udala egiten ari denaren berri herritarrei ematea, baina Zubeldiak adierazi duenez, "hasieratik izan genuen argi herritarrek eta bereziki herriko elkarteek ere bere txokoa izan behar zutela, eta horretan saiatzen ari gara".



Webgunea

zizurkil.com edo zizurkil.eu Udal atarira sartu denak ere sumatuko zuen aldaketa. "Aldizkariarekin batera, webgunea berritzeko prozesua jarri genuen abian. Aurreko webgunea zaharkitua zegoen, Windows-en menpeko sistema batean egina zen eta

ez zen eraginkorra funtzionamenduari begira", azaldu du. Kode irekian diseinatu dute webgunea berria. "Helburu nagusiak hauek izan dira: Herritarren parte hartzea sustatzea, diseinuan erakargarritasuna irabaztea, eta Udal langileek eurek informazioa eta dokumentuak txertatzeko

aukera izatea". Izan ere, aurreko sistemarekin, dokumentuak igotzeko prozesua konplikatu zen eta empresa baten bidez egin beharra zegoen. "Langileei ikastaroa eman genien eta ari dira gauzak zintzilikatzen. Horrela webgunea dinamikoagoa egingen dugu".

Herritarren parte hartzeari begira ere hainbat berrikuntza txertatu dira. "Herriko ekitaldien argazkiak eta bideoak jasotzeko atal bat jarri da, ekitaldien berri ematen duen egutegi bat egin da eta foro bat ere sortu da aldi oro pare bat galderari erantzuteko aukera emanez",

azaldu du. Aldaketa horietan guztietan, zeresana izan du diru laguntza batzuen bidez webgunea dinamizatzeko persona bat kontratzeko aukera eduki izanak. "Amaia Labaien herritarra kontratu dugu 6 hilabetez, eta lan bikaina egin du", azaldu du Zubeldiak.

Webguneen bateratzea

Aldaketarekin, gainera, Zizurkilgo Udalaren orriaren barnean sartu dira orain arte beste atarietan banatuta zuden web orriak ere. "Zizurkilbarrena ataria edo Gaztezuolo taldearen bloga esaterako, azpidomeinu bihurtu ditugu. Zizurkilgo liburutegiko bloga ere txertatu dugu. Horrela Udalak aurrezteko ere lortu du". Bateratzeaz gain, beste webgune horietan ere hobekuntzak egin dira erakargarriago suertu ditezkeen lortzeko.

Abriendo puertas a la comunicación

La periodista Leire Zubeldia es la primera concejala de comunicación en el Ayuntamiento de Zizurkil. "Hemos querido dar importancia a la comunicación, desde la misma estructura", remarca. "Como zizurkildarra, los últimos años hemos sentido que no sabíamos lo que estaban haciendo en el Ayuntamiento, y estamos dando pasos para romper con esa situación". Para ello, este último año han estado desarro-

llando el plan de comunicación diseñado el pasado verano.

Plazaberri

La revista que tiene entre manos, es fruto de esa apuesta. El pasado septiembre vio la luz la primera edición, y desde entonces, cada tres meses no ha faltado a su cita con las y los zizurkildarras. "El objetivo de Plazaberri es transmitir a la ciudadanía lo que se está haciendo

en el Consistorio. Sin embargo, también intentamos dar cabida a las asociaciones del municipio y a los y las zizurkildarras".

Página web

La página web del Ayuntamiento, www.zizurkil.com, también ha sido remodelado. "Los objetivos han sido los siguientes: Mejorar la participación ciudadana, el diseño de la página y que los y las trabajadoras

del Ayuntamiento tuvieran opción de subir información a la misma". La nueva página se ha realizado en código abierto. "La página anterior, estaba realizada en un sistema de windows que dificultaba el proceso de subir documentos e información", señala Zubeldia. Además, en la nueva página se han incorporado otras páginas web del municipio, como Zizurkilbarrena y el blog de Gaztezuolo.

Herritarren argazki zaharrak denen eskura

Zizurkilgo Udalaren webgunearen barnean txertatu da orain arte aparte zegoen zizurkilbarrena webgunea: barrena.zizurkil.eu helbidean. Bertan Otañoren liburuak, herriko toponimia mapa, ibilbideak, baserrien eta he-

rriko txokoen argazki berri eta zaharrak... hainbat dokumentu interesgarri zeuden, batez ere Joxin Azkue herritarren lanari esker. Beste hiru atal gehitu dizkio orain Udalak, galeria, hizkera eta oroimena.

Argazki zaharrak

Amaia Labaien aritu da webgunera eduki berriak igotzen. "Maialen Azkue herritarra, 2005ean irabazitako beka baten bidez, herriko baserri berrak ibili zen argazki zaharrak biltzen. Orain, argazki horiek denen eskura jarri ditugu. Argazkia jasotzen baserriaren arabera sailkatu ditugu erretratuak, horrek ez du esan nahi baserri horretako pertsonak soilik agertzen direnik, baina normalean familiakoak izaten dira", dio Labaienek. Ar-

gazkiak igotzeaz gain, informazioa ere igo du. "Argazki bakoitzean agertzen diren pertsonen zerrenda jarri da, Azkuek jasotzen zuten Zizurkildarrentzat kontsultatzeko txoko polita sortu dugulakoan nago".

Hizkera eta memoria

Horrez gain, memoria historikoari lotuta azaroan Hernandoren Kultur taldeak Udalarekin elkarlanean antolatutako ekitaldien bideoak eta informazioa jasotzen duen atal bat ere sortu da, eta herriko hizkera aztertzen den beste bat ere bai. "Urtzi Re-

guero herritarrek, 2010ean irabazitako beka bidez, zizurkildar hainbati elkarrizketak egin eta Zizurkilgo hizkera aztertu zuen, ahots kortek aztertu zuen, lan osoa eskuragarri jarri dugu". Zer ikusi eta ze entzun baduden beste bat ere bai. "Urtzi Re-

KRONIKA

Armarri berria lantzen

Maiatza hilabete betea izan da Zizurkilen. "Maiatza saltsan" ekimenaren baitan Nafarroako konkistari erreparatzeko aukera izan da hitzaldi, kantu eta bestelako ekitaldien bitartez.



gaia gizarteratu ondoren, armari berria lantzen hasteko bilera irekia egin zen ekainaren 13an. Beste herrietako armariak ikusi eta Zizurkilgoak beharko zituen ezaugarrien inguruan mintzatu ziren bertaratutako herritarrak. "Bi komunitateak, Zizurkil Goikoa eta behekoa lotuko dituen armari bat" behar lukeela iradoki zuten hainbatek. Zizurkilen beste hainbat ezaugarri ere aipatu ziren: Zubimusu, Ur-

kamendi, industria, Norteko tren... Ideia jarria hartuta, bertaratu ziren zizurkildar diseinatzaile eta artistek lehen proposamenak egingo dituzte. Azken hitza ordea, herriak izango du. Zizurkil Goikoa eta Elbarrenako festetan erakusketak irekia jartzea da asmoa, herritarrek gustukoaren duten armariaren alde egin dezaten. Zizurkil ordezkariak duen irudi berrirako bidea abian da.

Tartean izan da Zizurkilgo armariaren historia azaltzeko hitzaldia. Plazaberriren aurreko edizioan azaldu moduan, herri loturik daude Nafarroako konkista eta Zizurkilgo armaria. Belateko gudan Nafarren bandoari lapurtutako 12 kanoiak baitira Zizurkilgo armariaren islatzen direnak. Teodoro Hernandez taldeak mahai gainean jarri zuen eztabaida, eta armari horrek Zizurkilekin zerikusirik ez

duela erabaki zen herri bilera batean, aurretik, 1979an, Gipuzkoako aldundiak edo ondoren Lizartzako Udalak erabaki zuten gisa berean. Maiatza Saltsan-en baitan Zizurkilgo armariaren Juantxo Agirre Mauleon Aranzadiko idazkari nagusiak emandako hitzaldiak uste hori indartu besterik ez zuen egin.

Armarri berrirako ideiak
Maitza Saltsan-en bitartez

Ideas para un nuevo escudo

Después de haber socializado el origen del escudo actual con las charlas y las actividades de Maiatza Saltsan, el 13 de Junio se celebró una reunión abierta para empezar a trabajar en

las características del nuevo escudo de Zizurkil. La idea que más se escuchó entre los presentes, fue que "el nuevo escudo debería unir a las dos comunidades existentes, Zizurkil Goia y Elbarre-

na". Zubimusu, Urkamendi, la industria, el ferrocarril... fueron otras señas de Zizurkil que se mencionaron. Las próximas semanas, se trabajará en diferentes propuestas, pero al final, los y

las zizurkildarras tendrán la última palabra, ya que en las fiestas de Zizurkil Goia y Elbarrena se expondrán las diferentes propuestas para que entre todos y todas se elija el nuevo escudo.



Zorionak San Millan!!!

San Millan eskolaren men-deurrena ekitaldi ugari bidez ospatu berri dute zizurkildarrek. Asko hunkigarriak izan ziren, ostiraleko ikasle ohien topaketa edo

egun nagusiko bazkariaren ostean urteotako irakasleei egin zitzaizkien omenaldia esaterako. Aiton amona, guraso eta seme alabak, guztiak elkartu ziren ekainaren 10eko

bazkari arrakastatsuan, San Millanen ibilitako belaunaldi ugariaren seinale. Mendu-erreneko plaka eskolaren horman da bizitako guztiaren lekuko.

KRONIKA

Badatozela!

Zizurkilgo Andra Mari eta Arantzazuko Amabirjinaren jaiak prestatzen buru belarri dabilza Festa Batzordeak. Lanen nondik norakoak aurreratu dizkigute.



Uda gainean da eta harekin batera datoz urtaro honek ezaugarri dituen herrietako jaiak ere. Zizurkil Goikoek nahikoa denborarekin hartzen dute festen ardura: "Abenduan edo urtarrilean hasten gara biltzen. Goiko festen garaian hainbat lekutan izaten dira ospakizunak, eta komenigarria da musika taldeekin harremanetan jarri eta lehenbailehen lotzen hastea", dio Igotz Alkorta Goiko Batzordeko ordezkariak. Orditik hona 2-3 astetik behin bildu izan dira.

Elbarrenako kasuan batzordea osatzeko zailtasun handiagoak izan dituzte: "Martxoan biltzen hasi ginen 4-5 lagun inguru ginen soilik, baina pixkanaka jendea hurbildu eta azkenean 15-20 laguneko taldea osatu dugu", diote Ibai Ropon eta Andoni Usandizaga kideek. Ostegunero biltzen dira eurak.

Krisiari aurre eginez

Egoera ekonomiko zailak festetan ere izan du eragina eta %10eko jaitsiera izan dute bai batean zein bestean.

"Gastatzen dena are zorrotzago begiratzea dakar horrek. Egun bat garestiagoa ateraz gero, hurrengoan hori zaindu eta kito", dio Alkorta eta bat dago Elbarrenako kideak.

Aurrekontuetako jeitsierak, ordea, ez du herriko inor kanpoan utziko, adin eta soslai guztiak asetzeko moduko programa prestatzen dihardute eta. "Aurreko urteotako eredu jarraitu da: urtero dago jubilatuen eguna, gazteena, haurrena, ... agian bateren batek pentsatuko du beti berdina dela baina herritar guztiak aintzat hartuta, ezin zara ezer kentzen hasi" diote Ropon eta Usandizagak. "Bai, azkenean urteen poderioz osatutako eredu da dagoena, ez da inoren kapritxo; denak gustura uzteko moduko egitura baizik", gaineratu du Alkorta.

Nobedadeak

Aurtengoan abuztuaren 14tik 18ra bitartean izango dira Andra Mari jaiak. Kontzertuen artean, Ze Esatek! eta 3gabe2 daude eta ohitura onei jarraiki baita Laiotz eta Traketsen

emanaldiak ere. Eta besteak beste, aurten ere ez du hutsik egingo herritarren arteko herri kirol lehiak. Elbarrenan irailaren 5ean izango da txupinazoa eta aurten, 6 egunez iraungo du suziriak. Iazko

arrakasta ikusita, danborrada izango da aurtengoan ere "baina ordutegia moldatuko dugu, lehenago izan dadin", diote. Eta noski, asto karrera, kros mistoa eta pentatloia ez dira faltako.

Con el verano, las fiestas

Se acercan las fiestas de Zizurkil y las respectivas comisiones se están reuniendo desde hace unos meses. Los de arriba empiezan a reunirse con bastante antelación ya que sus fiestas coinciden con las de otros muchos municipios y hay que contratar a los grupos lo antes posible. En Elbarrena se reúnen desde marzo y, a pesar de que han tenido más dificultades para juntar a gente, han formado un grupo de 15-20 personas. La crisis económica también ha afectado al presupuesto y

ambas han tenido un descenso del 10%. No por ello, se ha visto perjudicada la variedad del programa que tiene en cuenta a todos los públicos. Este año, las fiestas de Andra Mari se celebrarán entre los días 14 y 18 de agosto y entre otros contarán con los conciertos de Ze Esatek!, 3gabe2 y Laiotz. Las fiestas de la Virgen de Aranzazu empezarán el día 5 de septiembre y durarán 6 días. Entre otros, se volverá a organizar la tamborrada por el éxito cosechado el pasado año.

ALEX INZA



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartzeko
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.

“Mediku lana ere bada gurea: bakoitzari bere “pilula” eman behar zaio”

Barra atzeko “sendagilea”

Noiztik dago zabalik Egarrri eta zer moduz joan dira urteok?

11 urte beteko ditu: 2001eko Uztailaren 11an ireki genuen eta ordutik hona egindako balantzea ona da. Honetatik bizigara behintzat eta...

Tabernari lanak zenbaitetan psikologoarenak dakartzak berekin?

Bai. Egarrri ireki genuela 11 urte dira baina denbora gehiago daramat ofizioan eta bai, psikologo lana ere egin behar izaten da. Medikua ere esango nuke: bakoitzari bere “pilula”, alegia, gustatzen zaiona edo behar duena eman behar zaio.

Eta tabernari-psikologoa izan ez bazina, zer?

Ni? Uf... ez dakit. 15 urtetatik nabil honetan eta hau da ezagutu dudana. Bestela, beste sektoreen bateko langile

arunta ziurrenik; elektrizista ikasketak ere eginak ditut... Auskalo!

Nabari duzue Egarrri herrian ondo errotuta dagoela?

Bai, Elbarrenako erdigunea bihurtu da neurri handi batean: laguntzeari egoteko, afaltzeko, partiduak ikusteko...

Partiduen gaia aipatuta... errealezale ala barzelonako zale gehiago hurbiltzen dira? Eta Athleticekoak?

Paretsu. Agian Bartzelona denean jende gehiago, baina maiz txapelketa garrantzitsuak izaten direlako. Telebista kate arruntek emititzen gero ere jende gutxiago nabaritzen da, kodifikatuta emititzen den horietan etxean ikusi ezin duena tabernari propioa agertzen baita. Errealaren kasuan, Anoetan jokatu

gero ere jende gutxiago dago tabernan. Eta Athleticekoak... gutxi.

Barruko aldea bai, bainan kanpoko ere betetzen zaizue... erretzaile gutxiago nabari dituzue ala terraza beteazue?

Erretzaileak lehen bezalaxe. Terrazan jende gehiago dago bai, baina lan gutxiago ere nabari da. Izan ere, asko dira kopa eta purua errez kartetan jokatzera etortzen zirenak eta orain, bereziki eguraldi txarrarekin eta terrazan ezin egonda, euren elkarrekin gertatzen direnak.

Horrek nolabaiteko jeitsiera ekarri dizue orduan... eta krisiak? Nola eragin dio tabernari?

Ez dago lehengo buurrunba asteburuetan, motelago gabilta. Beste

ohitura batzuk ikusten dira: tertulia gutxiago luzatzen da eta lehen otorduak borobiltzeko hartzen ziren postrea eta kopa, maiz ez dira eskatzen.

Esaiguzu...

Zizurkilgo txoko kuttun bat

Aurrera taberna. Nahiz eta orain itxita egon, lehen gure topagune baitzen.

Herriko pertsonaia bat

Julian Arrastoa. Herri-gintzan eragile moduan lan handia egiten du.

Zer dago soberan?

Lapurrak.

Eta zer faltan?

Elbarrenan erdigune bihurtuko den plaza bat, eta baita ondortik pasatzen den errepidea herri erditik kendu eta sahiesbidea egitea ere.